
ENTZUMENAREN TRANSKRIPZIOA.

ARMAIRU BETE OINETAKO

KAZETARIA 1: Maite Eskarmendi moda kontuetan aditu da, berari egingo diogu lehendabiziko galdera. Maite, egun on.

MAITE ESKERMANDI: Kaixo, egun on!

E1: Zenbat zapata-pare dauzka Maite Eskarmendik?

M.E. Asko (barreak).

K1. Lotsa emateko adina?

M.E Bai. Bai. Egia esateko, bai. Orain...

K1. Zenbakia eman dezakezu, ausartu zaitezke zenbakia ematera?

M.E. Begiratu. Oraintxe nago juxtu zapatak gordetzen ditudan armairuaren aurrean, eta botak, bakarrik 15 bat bai.

M.E. Bai.

E. Botak bakarrik?

M.E. Botak, botinak... Ni ere banaiz gordetzen dituen horietako bat. Osea, urteak pasa ahala gordetzen ditut. Gainera, gaur egun, nola gauzak ez diren modaz pasatzen, ba beno: gordetzen n(ih)oa, gordetzen noa... Eta gero baila ere batzuk igual ez ditudanak erabiltzen, baina berriak daude, eta pena ematen dit botatzeak... Normalean lagunei oparitzen diet, baina badaude beste batzuk, ba, gordetzen ditudanak... ba igual ez dakit batzuk dauzkat zapatak... Ni Brasilen denboraldi batean bizitakoa naiz, eta han zapatak eta, larrua oso, oso palita da, eta merkeagoa da, oso onak dira, eta, orduan, gordetzen ditut.

KAZETARIA 2. Zenbat zapata-pare ekarri zenuen Brasildik?

M.E. Brasildik, puf, 10 bat edo gehiago bai.

K 2. Beno, 15 bota-pare, Brasildik ekarritako 10 zapata-pare, 25ean gaude dagoeneko, falta zaizkigu sandaliak, hemen erositako zapatak, takoidunak ...

g

K 1. Bai.

M.E. Ba, jartzen gara oso kopuru altuan. Eta gainera, esaten dizuet lotsa ematen didala.

K2. 70ean igual.

M.E. Ba, igual bai. Ze azkenean, begiratu, adibidez, udarakoak eta... Eta gero, baila ere, kontuan izan behar da gaur egun ez dela lehen bezala, ez? Igual erosten genituen negurako bota-pare bat, horiek txikitu egiten genituen, eta hurrengo denboraldian, hurrengo urtean, beste batzuk erosten genituen, ez?

Gaur egun, aukera... Eskurago daude bai prezioarengatik, ze azkenean ez dituzu hain zapata onak erosten. Igual, bat daukazu zerago dena, baina gero azkenean, ba, bueno, beharpenak direla eta moda-aldaketak, eskura dituzula, gordetzen joaten zaren guzti horiek... Ba, denak batzen baldin bazoaz, azkenean nik dauzkat bi armairu bakarrik zapatentzako.

K 1. Armairua. Osea, zapatentzako bakarrik bi armairu daukazu?

K 2. 70 pare kabitzeko, pentsal

M. E. Bai, bai. Eta gainera ni naiz gainera kaxetan gordetzen dituen horietakoa, denak zainduta... Udarakoak normalean aparte gordetzen ditut eta denboraldi-aldaketa egiten dudanean, ba, ateratzen ditut. Gertatzen dena da, orain ere udaran botak erabiltzen ditugu, beno, nik behintzat.

Orduan ba, edukitzen ditut, ba, bueno, takoiak adibidez... gaur egun ez ditut erabiltzen, baina bere garaian, bai. Orduan, dauzkat, ba, takoizko ba... beti gordetzen dituzu, ba zedozer baldin badaukat... ba, behintzat horiek edukitzeko. Bueno, azkenean pilatzen zoaz...

Eta ez dakizu nola desegin. Orain gutxi etxez aldatu naiz, eta zapatak izan dira lan gehien eman didatenak, arropak baino gehiago, ez?

K 1. Bueno, Maite Eskarmendi, bi armairu osorik dauzka zapatez beteak. Maite, eskerrik asko hau guztia kontatzeagatik.

A1 MAILA

ARMAIRU BETE OINETAKO

ENTZUMENAREN ULERMENA.

Erantzun galdera hauei:

1. Zenbat bota edo botin ditu Maitek?
 - a. 10 bat.
 - b. 25 bat.
 - c. 15 bat pare.

2. Zein herrialdetan dira oinetakoak onak eta hemen baino merkeagoak?
 - a. Italian.
 - b. Brasilen.
 - c. Argentinan.

3. Zenbat armairu ditu Maitek oinetakoak gordetzeko?
 - a. Bakarra, eta oinetakoak bakarrik gordetzen ditu.
 - b. Bakarra, eta arroparekin balera gordetzen ditu.
 - c. Oinetakoentzat bakarrik bi.

4. Guztira zenbat oinetako-pare ditu Maitek?
 - a. 70
 - b. 65
 - c. 55